

Lantaldearen txostena:
Ikuskizun Publikoen
Muntaketa

Aldi baterako ikuskizun publikoak kudeatzeko irizpide teknikoak

Autonomia Erkidegoen
eta Laneko Segurtasun
eta Osasunaren Institutu
Nazionalaren Arteko
akordioa



**Lantaldearen txostena:
Ikuskizun Publikoen Muntaketa
eta Autonomia erkidegoen
eta LSOIN institutuaren arteko
akordioa, aldi baterako ikuskizun
publikoak kudeatzeko irizpide
teknikoei buruzkoa**



Barakaldo, 2020

Obraren jatorrizko izenburua: Informe del grupo de trabajo: montaje de espectáculos públicos. Acuerdo de las Comunidades Autónomas y el INSST sobre criterios técnicos para la gestión de espectáculos públicos temporales

Argitaratzailea: Instituto Nacional de Seguridad y Salud en el Trabajo (INSST), O.A, M.P.
C/Torrelaguna, 73, 28027 Madrid
www.insst.es

Lege gordailua: M-16670-2020

Lekua eta argitalpen-urtea: Madrid, 2020ko uztaila

Koordinatzaileak: Ana Sánchez Sauce (INSST) y otros

Lineako dokumentua (30 p.: PDF)

Hizkuntza: Español

Editorearen URLa:

https://www.insst.es/documents/94886/0/Informe+CCAA_INSST+Criterios+t%C3%A9cnicos+para+la+gesti%C3%B3n+de+espect%C3%A1culos.pdf/3de8fa6c-76d6-4469-b968-4e529e39ba1a

Laneko Segurtasun eta Osasunaren Institutu Nazionala (LSOIN) Autonomia-Erdidegoekin koordinatuta egindako dokumentua

Izenburua: Lantaldearen txostena: ikuskizun publikoen muntaketa. Autonomia erkidegoen eta LSOIN institutuaren arteko akordioa, aldi baterako ikuskizun publikoak kudeatzeko irizpide teknikoei buruzkoa / Informe del grupo de trabajo: montaje de espectáculos públicos. Acuerdo de las Comunidades Autónomas y el INSST sobre criterios técnicos para la gestión de espectáculos públicos temporales

Edizioa: 1.a, 2020ko iraila.

Ale-kopurua: 20 ale.

© Euskadiko Autonomia Elkarteko Administrazioa /
Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Argitaratzailea: OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea /
Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales.
Dinamita Bidea, zg - 48903 Barakaldo (Bizkaia).

Egileak: Ana Sánchez Sauce (INSST), Cecilia Gavilanes Pérez (INSST), María Teresa Sánchez Barba (IRSST), Mercedes Garrido Rodríguez (IRSST)

Internet: www.osalan.euskadi.eus

Fotokonposizioa eta inprimaketa: Fotocomposición Ipar, S. Coop.
Zurbaran kalea, 2, 4 - behea, 48007 Bilbao (Bizkaia)

Lege gordailua: LG BI 01346-2020

EDUKIA

1.	Sarrera.....	6
2.	Lantaldearen sorrera eta jarduera.....	6
3.	Ondorioak.....	8
4.	Adibideak.....	10
	I. eranskina. Lantaldeko parte-hartzaileak.....	27
	II. eranskina. Informazio-iturriak.....	28




Txosten honen edukia teknikoak baino ez da, ez da loteslea, eta aldi baterako ikuskizun publikoak muntatzeko eta desmuntatzeko jardueretan segurtasunaren eta osasunaren kudeaketa bideratzea du helburu bakar

1. SARRERA

Aldi baterako ikuskizun publikoak muntatzeko eta desmuntatzeko jardueretan gertatzen diren laneko istripuek zerikusia izaten dute, batez ere, leku garai batetik erortzearekin, eta ondorioak, askotan, larriak izaten dira; are hilgarriak ere. Istripu horien ikerketetan, segurtasun-arloko prebentzio-neurririk ez izateaz gain, istripuen zuzeneko kausa izan baitaiteke, ikusten da prebentzio-kudeaketaren konplexutasun teknikoak zaildu egiten duela laneko arriskuak antolatzea, koordinatzea eta produkzio-prozesuan txertatzea, eta zuzeneko kausa horien jatorria izan daitekeela.

Gainera, konplexutasun tekniko horrek zailtasunak sortzen dizkie bai jardueren kudeaketa eta garapenarekin zerikusia duten enpresei, bai administrazio publikoei, bereziki autonomia-erkidegoetakoiei.



2. LANTALDEAREN SORRERA ETA JARDUERA

Madrilgo Komunitateko Laneko Segurtasun eta Osasuneko Eskualde Institutuak (LSOEI), Madrilen gertatutako bi istripu hilgarriren ondorioz, Laneko Segurtasun eta Osasuneko Institutu Nazionalari (LSOIN) lantalde bat sortzea proposatu zion, autonomia-erkidegoen parte-hartzearekin sortu ere, estatu osoan irizpide tekniko komunak ezartzeko eta, hartara, aldi baterako ikuskizun publikoen muntaketan, prebentzio-kudeaketa errazteko zerikusia duten enpresei eta administrazioei, bereziki autonomia-erkidegoetakoiei.

Horregatik, 2018. urtearen hasieran, *Lantaldea: Ikuskizun Publikoen Muntaketa* eratu zen, bertan autonomia-erkidego guztiak eta LSOIN ordezkatuta zeudela (ikus I. eranskina). Lantalde hori foro bat izan da, zertarako eta aldi baterako ikuskizun publikoen muntaketan laneko arriskuen prebentzioaren kudeaketari buruzko esperientziak trukatzeko, eta zenbait dokumentu aztertu dira (ikus II. eranskina). Horren guztiaren bidez, nazio osorako irizpide tekniko homogeneo bat lortu nahi izan da, prebentzio-kudeaketa errazteko ho-

rrerelako jardueretan, eta zehazteko ea jarduera hori 1627/1997 Errege Dekretuak (urriaren 24koa, eraikuntzako obretako segurtasuneko eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzen dituena) daukan aplikazio-esparruan dagoen ala ez. Azken kontu horri dagokionez, argi utzi zuten ezen, prebentzioaren ikuspuntutik alderik egon behar ez izan arren eraikuntzako obratzat hartuta zein ez¹, kudeaketaren ikuspuntutik alde garrantzitsuak daudela eraikuntzako obratzat hartuz gero, besteak beste, 32/2006 Legea (urriaren 18koa, Eraikuntzaren Sektoreko Azpikontratazioa arautzen duena) aplikatu beharko litzatekeelako.

Horretarako, lehenik eta behin, jarduera lau fase bereizitan banatzea erabaki zen:

- Lurra egokitzea: urbanizazioa, lurrak mugitzea, berdintzea, trinkotzea, eta abar.
- Egituren muntaketa: agertokia, estalkia, dorreak, plataformak, mailadiak, eta abar.
- Produkzio teknikoak: ikuskizuna egiteko behar diren ikus-entzunezko instalazioak.
- Instalazio osagarrien muntaketa: barrak, aldagelak, komunak, standak, eta abar.

Lantaldearen azken bileran, teknikari bakoitzak, bere autonomia-erkidegoa ordezkatzuz, adierazi zuen zer iritzi zuen 1627/1997 Errege Dekretua aplikatzeaz edo ez aplikatzeaz fase horietako bakoitzerako; faseak 3. atalean dauden zehaztuta. Hala ere, oro har, honako premisa hauek erabaki ziren:

- Obra eraikuntzakoa den erabakitzeko, kontuan hartuko dira eraikuntzako tekniken erabilera, leku garai batetik erortzeko arriskua eta muntaketaren ezaugarriak.



¹ Eraikuntzako obratzat hartu ezean, besteak beste, honako hauek aplikatuko lirateke:

- 171/2004 Errege Dekretua, urtarrilaren 30ekoa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 1995eko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duena enpresa-jardueren koordinazioaren arloan.
- 486/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, Lantokietako gutxieneko segurtasun- eta osasun-baldintzak ezartzen dituena.



- Eraikuntzako obratzat hartuko dira:
 - Lurra egokitzea, betiere lurak mugituz gero.
 - Egiturak muntatzeko faseak, produkzio teknika eta instalazio osagarriak eraikuntzako obratzat hartuko dira baldin eta «agertokiaren muntaketa egiteko proiektuan» badaude.
 - Bezeroak halakotzat jo dezaten eskatzen duen jarduera oro.

Era berean, gogorarazi behar da lan bat proiektu batean jasota ez egoteak ez duela esan nahi ez dela eraikuntzako-obratzat hartu behar. Adibidez, proiektu batean jaso gabe egonda ere, oro har, eraikuntzako obratzat hartzen dira egitura baten estalkia egiteko lanak (iraunkorra edo aldi baterakoa; trinkoa, sendoa edo xafila metalikoa, PVCz, tenkatutako olanaz, tefloiz eta abarrez egina).

3. ONDORIOAK

Lantaldeak, azken bileran, sektorearen arautze espezifikorik ez dagoenez, nabarmendu zuen argitu beharra dagoela egungo araudiaren aplikazioa jarduera hauetan, aplikazioa hori estatuko lurralde osoan era homogeneoa egiten dela bermatzeko. Halakorik ezean, hurrengo taulak biltzen du, ikuskizun publiko bat muntatu eta desmuntatzean egon dai-

tezkeen faseetako bakoitzerako, zer zantzu hartu behar diren kontuan 1627/1997 Errege Dekretuaren aplikazioari buruzko irizpidea zehazteko, *Eraikuntza-obrei lotutako arriskuen ebaluazioa eta prebentziorako gida teknikoa* delakoan jasotako osagarri.

Gogorarazi behar da ezen, eraikuntza-obren aplikazio-esparruan, enpresa-jardueren koordinazioari dagokionez, kontuan hartuko dela 171/2004 Errege Dekretuaren² lehen xedapen gehigarria (errege-dekretu



² Lehen xedapen gehigarria:

7. artikuluko informazioa sustatzaileak bete duela joko da segurtasun- eta osasun-azterketaren edo oinarritzko azterketaren bidez, 1997ko urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren 5. eta 6. artikuluetan ezarritako baldintzetan.
8. artikuluko argibideak sustatzaileak bete dituela joko da segurtasun-eta osasun-koordinatzaileak emandakoen bidez lanaren gauzapenean, figura hori dagoenean; bestela, eskumena duen zuzendaritzak emango ditu.

hori urtarilaren 30ekoa da, eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen du).

Fasea	Kontuan hartutako zantzuak	Eraikuntza-obra ³
Lurra egokitzea	Urbanizazio-lanak egitea, lurrak mugitzea, berdintzea, trinkotzea, soiltzea, etab.	BAI
Egituren muntaketa	Egitura prefabrikatuen elementuen muntaketa.	BAI
	Egitura bat hedatzea (eskuz edo mekanikoki) lurzoruaren mailan.	EZ
	Egitura baten elementuak lotzea lurzoruaren mailan.	
Produkzio teknikoak	Egituren proiektuan bildutako jarduerak, beharrezkoa izanda ekipamendu teknikoak (argia, soinua eta bideoa) instalatzea eta elikatze-iturriekin konektatzea.	BAI
	Teknikaren instalazioa konplexua izateagatik proiektu propio baten premia duten jarduerak.	EZ
Instalazio osagarrien muntaketa	Ekipamendu teknikoak (argia, soinua eta bideoa) elikatze-iturriekin konektatzea.	
	Obra zibila behar du, edo egiturak, saneamenduak edo beste instalazio batzuk muntatzea.	BAI
	Ekipamenduak elikatze-iturriekin konektatzea.	EZ



b) Enpresari nagusiarentzat IV. kapituluaren ezarritako neurriak 1997ko urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren 2.1.h) artikuluan zehaztutako kontratistari dagozkio.

c) Eraikuntzaren sektorean koordinazio-bitartekoak izango dira 1997ko urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren ezarritakoak eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 1995eko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritakoak, baita lanetan parte hartzen duten enpresek ezar ditzaketen beste bitarteko gehigarri batzuk ere.

³ Eraikuntza-lanetarako segurtasun- eta osasun-arloko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren aplikazioa.



4. ADIBIDEAK

Deusetan galarazi gabe organo eskudunek laneko arriskuen prebentzio-arloan egin ditzaketen interpretazioa eta aplikazioa, atal honetan ahalegina egingo da argitzeko 3. ataleko taulan identifikatutako faseetan zerbait eraikuntza-obratzat hartzeko edo ez hartzeko erabakia. Horretarako, ondorengo adibideetan, ekitaldi bat egiteko behar diren zenbait jarduera aurkezten dira.

Hala ere, argi gera bedi planteatutako kontuak «orokorrak» direla eta, beraz, **ikuskitunak muntatzeko jarduerak egiten direnean, egoera osoa aztertu behar dela, lanak eraikuntza-obra diren erabakitzeko, eta, horrenbestez, 1627/1997 Errege Dekretuaren aplikazio-esparruaren barruan dauden jakiteko.**



1. adibidea. Agertokiaren parte den plataforma muntatzea



Kontuan hartutako zantzuak	Egitura prefabrikatu bat altueran muntatzea. Goratzeko ekipamenduen erabilera.
Irizpidea	1627/1997 Errege Dekretua aplikatzea.



2. adibidea. Agertoki bat muntatzea lurzoruaren mailan



Kontuan hartutako zantzuak	Lurzoru-mailan hedatzea plataforma bermatzeko elementuak. Plataformako elementuak lurzoru-mailan konektatzea bermeen gainean jartzeko.
Irizpidea	1627/1997 Errege Dekretua ez aplikatzea.

3. adibidea. Produkzio teknikoak hartzen duten egiturak muntatzea


87. adibidea hemen bilduta: *Guía de buenas prácticas de carácter no obligatorio para el entendimiento y la aplicación de la Directiva 92/57/CEE.*



Kontuan hartutako zantzuak	Egituraren muntaketa gauatzeko proiektu bat egotea. Altuerako lanak egitea. Goratzeko ekipamenduen erabilera.
Irizpidea	1627/1997 Errege Dekretua aplikatzea.





4. adibidea. Aire zabaleko auditorium batean produkzio tekniko hartzen duten egiturak muntatzea



Kontuan hartutako zantzuak	Egituraren muntaketa gauzatzeko proiektu bat egotea. Altuerako lanak egitea. Goratzeko ekipamenduen erabilera.
Irizpidea	1627/1997 Errege Dekretua aplikatzea.


5. adibidea. Ikus-entzunezko ekipamenduak bermeen gainean jartzea



Kontuan hartutako zantzuak	Bermeak hedatzea eta ikus-entzunezko ekipamenduak lurzoru-mailan haien gainean jarri eta finkatzea.
Irizpidea	1627/1997 Errege Dekretua ez aplikatzea.



6. adibidea. Bola motorizatu txiki bat areto batean jartzea



Kontuan hartutako zantzuak	Konexio elektrikoa jada badagoen korrante-hargune baten bidez. Tako eta torloju bidez finkatzea.
Irizpidea	1627/1997 Errege Dekretua ez aplikatzea.

7. adibidea. Kableak pasatzeko kanaleta jartzea, ikus-entzuneko instalazioko kableak babesteko



Kontuan hartutako zantzuak	Lurzoruan finkatzea eta kablea barruan jartzea.
Irizpidea	1627/1997 Errege Dekretua ez aplikatzea.



8. adibidea. Ikusleen jarlekuak harmailetan jartzea

48. adibidea hemen bilduta: *Guía de buenas prácticas de carácter no obligatorio para el entendimiento y la aplicación de la Directiva 92/57/CEE.*



Kontuan hartutako zantzuak	Egitura prefabrikatu bat altueran muntatzea. Egituraren muntaketa gauzatzeko proiektu bat egotea.
Irizpidea	1627/1997 Errege Dekretua aplikatzea.

9. adibidea. Jarleku zabalgarriak muntatzea



Kontuan hartutako zantzuak	Aulkiak lurzoru-mailan zabaltzea eta jartzea.
Irizpidea	1627/1997 Errege Dekretua ez aplikatzea.



10. adibidea. Egitura txiki bat muntatzea, bannerra, ekitaldiaren programa jartzeko



Kontuan hartutako zantzuak	Bannerra lurzoruan bermatzeko eta finkatzeko elementuak zabaltzea, geroago goratzeko.
Irizpidea	1627/1997 Errege Dekretua ez aplikatzea.

11. adibidea. Karpa muntatzea ekitaldia egiteko



Kontuan hartutako zantzuak	Egitura prefabrikatu bat altueran muntatzea. Gauzatzeko proiektu bat egotea.
Irizpidea	1627/1997 Errege Dekretua aplikatzea.



12. adibidea. Agintarientzako karpa txiki bat muntatzea



Kontuan hartutako zantzuak	Egiturazko barrak konektatzea eta lurzoru-mailan ixtea geroago gortzeko.
Irizpidea	1627/1997 Errege Dekretua ez aplikatzea.

13. adibidea. Agertoki mugigarria muntatzea: kamioia eta elementu prefabrikatuen egiturak, kamioia bera ez direnak, agertokiaren egitura handitzen dutenak edo produkzio teknikoaren elementuak hartzen dituztenak



Kontuan hartutako zantzuak	Egitura prefabrikatu bat altueran muntatzea. Egituraren muntaketa gauzatzeko proiektu bat egotea.
Irizpidea	1627/1997 Errege Dekretua aplikatzea.



14. adibidea. Kamioi bat besterik ez den agertoki mugikorra




Kontuan hartutako zantzuak

Agertokiaren zatien, piezen eta osagaien hedatze mekanikoa, industria-legediak araututa.

Irizpidea

1627/1997 Errege Dekretua ez aplikatzea.

15. adibidea. Kamioi bat besterik ez den agertoki mugikorra



Kontuan hartutako zantzuak	Muntaketa gauzatzeko proiektu bat egotea.
Irizpidea	1627/1997 Errege Dekretua aplikatzea.



16. adibidea. Ikuskizunerako dekoratua muntatzea



**Kontuan
hartutako
zantzuak**

Elementu prefabrikatuak eta egiturak muntatzea.
Zamak goratzeko ekipamenduak erabiltzea; garabia, adibidez.
Altuerako lanak egitea.

Irizpidea

1627/1997 Errege Dekretua aplikatzea.

I. ERANSKINA LANTALDEKO PARTE-HARTZAILEAK

Erakunde	Teknikoa
Laneko Segurtasun eta Osasuneko Institutu Nazionala	CECILIA GAVILANES PÉREZ ANA SÁNCHEZ SAUCE
Laneko eta Lan-arloko Ongizateko Zuzendaritza Nagusia Andaluziako Junta	FRANCISCO ROMÁN MANTERO
Aragoiko Laneko Segurtasun eta Osasuneko Institutua	FERNANDO BLÁZQUEZ CALVO
Kantabriako Laneko Segurtasun eta Osasuneko Institutua	MARÍA CONCEPCIÓN MUÑOZ DÍAZ
Gaztela-Mantxako Komunitateen Batzordea	BELÉN DEL POZO LÓPEZ
Laneko eta Lan-arloko Arriskuen Prebentzioko Zuzendaritza Nagusia Gaztela eta Leongo Junta	RUBÉN RALIEGOS MARTÍN
Kataluniako Laneko Segurtasun eta Osasuneko Institutua	JIRI TURDY MOIX
Madrilgo Komunitateko Laneko Segurtasun eta Osasunaren Eskualde Institutua	MERCEDES GARRIDO RODRÍGUEZ TERESA SÁNCHEZ BARBA
Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua	AINGERU PÉREZ MURILLO
Valentziako Laneko Segurtasun eta Osasuneko Institutua	FRANCISCO ROMÁN ASENSI
Extremadurako Laneko Segurtasun eta Osasuneko Institutua	JUAN MANUEL VALMORISCO PANADERO
Galiziako Laneko Segurtasun eta Osasuneko Institutua	PABLO GARCÍA FERNÁNDEZ
Balearretako Laneko Segurtasun eta Osasuneko Institutua	DANIEL COMPANY OLIVER
Kanarietako Laneko Segurtasuneko Institutua	PATRICIA PÉREZ HERNÁNDEZ ADRIÁN JESÚS NAVARRO RODRÍGUEZ
Errioxako Laneko Segurtasuneko Institutua	JULIO JAVIER SORIA PEÑA
Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea	ALBERTO ALONSO VIVAR
Laneko Arriskuen Prebentziorako Asturiasko Institutua	JOSÉ LUIS DEL POZO ALÁEZ
Laneko Segurtasun eta Osasuneko Institutua. Murtziako Eskualdea	ÁNGEL MOTA LÓPEZ



II. ERANSKINA INFORMAZIO-ITURRIAK

Lantaldeak, ondoren zerrendatutako informazio-iturriak ez ezik, beste elementu batzuk ere aztertutitu, hala nola, jarduera hauekin zerikusia izanda, erakunde publikoei egindako kontsultak, epai juridikoak eta laneko istripuak.

Araudia

INSSTren <https://www.insst.es/normativa> estekaren bidez, araudiaren kontsulta egin daiteke:

- 92/57EEE Zuzentaraua, Kontseiluarena, 1992ko ekainaren 24koa, eraikuntza-obra mugigarrietan edo aldi baterakoetan aplikatu behar diren gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenei buruzkoa.
- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa.
- 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, eraikuntzako obretako segurtasuneko eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen.
- 171/2004 ERREGE-DEKRETUA, urtarrilaren 30ekoa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 1995eko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duena enpresa-jardueren koordinazioaren arloan.
- 486/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, Lantokietako gutxieneko segurtasun- eta osasun-baldintzak ezartzen dituen.
- 614/2001 Errege Dekretua, ekainaren 8koa, arrisku elektrikoaren aurrean langileen osasuna eta segurtasuna babesteko gutxieneko xedapenei buruzkoa.
- 1215/1997 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, Langileek lan-ekipamenduak erabiltzeko gutxieneko segurtasun- eta osasun-baldintzak ezartzen dituen.
- 32/2006 Legea, urriaren 18koa, Eraikuntzaren Sektoreko Azpikontratazioa arautzen duena.

Europako zenbait herrialdetako legedia

- ALEMANIA. Ekonomia Ministerioaren Ordenantza, biltzeko lekuak eraikitzeari eta baliatzeari buruzkoa.
<https://dejure.org/gesetze/VStaettVO>
- FRANTZIA. CCH CODE DE LA CONSTRUCTION ET DE L'HABITATION CODE DU TRAVAIL.
<https://www.culture.gouv.fr/Sites-thematiques/Theatre-spectacles/En-pratique/Prevention-des-risques-et-securite-dans-le-spectacle-vivant-et-enregistre/L-organisation-de-la-prevention-des-risques-une-responsabilite-de-l-employeur-et-du-salarie>
- HOLANDA Araudia: NPR (NATIONAL PRACTICE DIRECTIVES) saila 8020 Ekitaldietarako arauak.
<https://www.nen.nl/NEN-Shop/Norm/NPR-8020512013-nl.htm>
- ITALIA. Decreto interministeriale sulla sicurezza dei palchi e degli allestimenti fieristici.
<http://sitiarcheologici.lavoro.gov.it/SicurezzaLavoro/MS/Normativa/Documents/Decreto%20Palchi.pdf>
- ERRESUMA BATUA (UK) The Construction Design and Management Regulations 2015 (CDM 2015).
<http://www.hse.gov.uk/construction/cdm/2015/index.htm>

Argitalpen interesgarriak

- *Guía técnica para la evaluación y prevención de los riesgos relativos a las obras de construcción*. LSOIN. 2020ko urtarrila.
- *Guía de buenas prácticas de carácter no obligatorio para el entendimiento y la aplicación de la Directiva 92/57/CEE «Obras de construcción»*. Europako Batzordea. 2010eko abendua.
- *Approved Code of Practice for Load-lifting Rigging building and construction- Health and Safety*. Ministry of Bussines, Innovation and Employment Nueva Zelanda. 2012ko abendua.
- *Guía para la coordinación de actividades empresariales de espectáculos públicos en ayuntamientos*. Ikuskizunen arloko Ordezkaritza Teknikoen Elkarte. 2009.
- *Normativa para colgar estructuras en pabellones / Rigging IFEMA*. 2013ko martxoa.
- *Ikuskizunetarako aldi baterako egiturak*. OSALAN, Eusko Jaurlaritza. 2015eko apirila.
- *Prevención de riesgos escénicos*. Musikaren Institutu Nazionala. Argentinako Teknikari Eszenikoen Sindikatua. Argentina. 2016ko azaroa.



- *Matériels et Ensembles Démontables*. Syndicat national des prestataires de l'audiovisuel scénique et événementiel. Ministre Culture. Francia. Avril 2017.
- *Manual de seguridad en artes escénicas y espectáculos*. FREMAP. 2018ko otsaila.
- *Folla de prevención. Prevención de riesgos laborales en el montaje y desmontaje de escenarios*. ISSGA Xunta de Galicia. 2018ko maiatza.
- *Triptiko - Prevención de riesgos laborales en el montaje y desmontaje de escenarios: Documentación de PRL en el montaje de escenarios o gradas*. ISSGA. Galiziako Xunta. 2018ko maiatza.
- *Triptiko - Prevención de riesgos laborales en el montaje y desmontaje de escenarios: Coordinación de actividades*. ISSGA. Galiziako Xunta. 2018ko maiatza.
- *Liburua Seguridad y Salud en Construcción*. Ramón Pérez Merlos, José Antonio Sanz Miguélez. Aranzadi argitaletxea, 2019. 4.1.3 kapitulua.
- *Prevención de riesgos laborales en espectáculos públicos y actividades recreativas*. LSOEI Madril. 2009.
- *Eskuliburua. Normas montaje rigging en eventos*. Madril Destino. 2018.
- *Eskuliburua. Ekitaldiak muntatzeko arauak*. Madril. Destino 2018.
- *100 Preguntas sobre prevención de riesgos laborales en los espectáculos en vivo*. Ikuskitzen arloko Ordezkaritza Teknikoen Elkarte. Associació Professional de Representants Managers y Promotors de Catalunya. Centro de Investigación y Formación de Empresas S.L. 2009.
- *Prevención de Riesgos Laborales en los Espectáculos en Vivo*. Andaluziako Ikasketa Eszenikoen Zentroa. Andaluziako Junta.
- *Guía de iniciación al rigging en la industria del entretenimiento*. Asociación de Sonido, Iluminación y Tecnología. AFIAL, Pablo Moreno. 2016.
- *The Purple guide to health safety and welfare at music and other events*. Institution of Occupational Safety and Health. The Concert Promoters Association. 2013.
- *Guide pratique de la production et de l'organisation de spectacles vivants*, Philippe Audoubert. 2014.

Arau teknikoak

(Lantaldea WG311 Entertainemenduen Industriaren Normalizazioa UNE AENOR).

- **UNE-CWA 15902-1:2014** Agertokietan zamak goratzeko eta esekitzeko ekipamenduak eta entertainemenduen industriaren barruko beste produkzio-arlo batzuk. 1. zatia: eskakizun orokorrak. (Altzairu eta aluminiozko *trussak* alde batera utzita).

- UNE 311001:2016 Entretenimenduaren industria. *Rigginga*. Artistentzako eskuzko hegal-di-sistemak. Eskakizun orokorrak.
- UNE-EN 17115:2019 Entretenimenduaren teknologiak. Altzairu eta aluminiozko *trussak* diseinatzeko eta fabrikatzeko zehaztapenak.

Kongresuak eta jardunaldiak

- Aldi baterako instalazioen, ekitaldien, industriaren, ikuskizunen urteko foroa. ASPEC Aldi baterako instalazioetarako karpen elkarteak.
- Prebentziora hurbiltzea ikuskizunen sektorean. Ikuskizun publikoen muntaketa: erantzukizunak eta jardueren koordinazioa laneko arriskuen prebentzioan. Andaluziako Junta, 2014-2015.
- Laneko arriskuen prebentzioa kultura- eta jolas-jardueretan. Bilbo 2015.
- Ekitaldietako komunikazio eta segurtasunari buruzko IV. nazioarteko kongresua. Madridgo Unibertsitate Konplutentseko Informazio Zientzietako Fakultatea (Madril). 2019ko apirilaren 25a.
- «Segurtasuna ekitaldietarako aldi baterako egituretan» jardunaldi teknikoak - IAPRL (Asturias), 2019ko apirilaren 26a.
- Musika- eta kirol-ekitaldietako segurtasunari buruzko jardunaldia, UPB Eraikuntza Fakultatea (Bartzelona). 2019ko azaroaren 29a.
- Laneko arriskuen prebentzioa agertokiak muntatu eta desmuntatzean. Galizia (Rande), 2018ko maiatzaren 11.
- Jendaurreko ikuskizunak: Prebentzioa muntaketan eta desmuntaketan eta zarata. Galizia (Coruña), 2019ko maiatzaren 9a.

Web-orriak

- <https://sympathyforthelawyer.com/2019/03/20/obligaciones-promotores-conciertos-prevencion-riesgos-laborales/>
- <https://www.gslprevencion.com/prevencion-de-riesgos-laborales-en-espectaculos/>
- <http://nocomun.com/?p=1232&lang=es>
- <http://www.argh.nl/cursus/rigging-praktijk>
- <https://www.puntosicuro.it/sicurezza-sul-lavoro-C-1/settori-C-4/edilizia-C-10/palchi-fiere-la-normativa-la-sicurezza-degli-operatori-AR-14832/>
- <https://www.bbc.co.uk/safety/resources/aztopics/events-general-guidance.html>
- www.redescueladeverano.es/2011/programa_de_cursos/ficha.php?id=59

Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco



ZERBITZU OROKORRAK

Dinamita Bidea, z.g. (Basatxu Mendia)
48903 Barakaldo (Bizkaia)
Tel. +34 944 032 190

ARABAKO LURRALDE ZENTROA

José Atxotegi, 1
01009 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel. +34 945 016 800

BIZKAIKO LURRALDE ZENTROA

Dinamita Bidea, z.g. (Basatxu Mendia)
48903 Barakaldo (Bizkaia)
Tel. +34 944 032 190

GIPUZKOAKO LURRALDE ZENTROA

Maldatxo Bidea, z.g.
20012 Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa)
Tel. +34 943 023 262

www.osalan.euskadi.eus